



24 ORDUZ ARETO FUTBOLA VILLABONAN

Etzi eguerdian hasiko da 'Billabonara' lehiaketa; bihar izango da izena emateko azken eguna >4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-09-17

VILURTEA 1.778.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Mendiluze, Agirre, Irazu eta Muñoa ariko dira Bertsolari Txapelketan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA 44 bertsolari ariko dira txapela lortu nahian, 4 eskualdekoak; finala abenduaren 13an da

KANPORAKETAK Bi hartuko ditu eskualdeak: Leitzakoa urriaren 10ean izango da, eta Tolosakoa, azaroaren 14an z



Bertsozale Elkarteko arduradunak eta babesleak, atzo, XV. Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aurkezpenean. G. EIZAGIRRE

XI. Garagardo Festa gaurtik zabalik, Zerkausian

TOLOSA 27 garagardo mota eta alemaniar ohiko jakiak dastatu ahaliko dira igandera bitarte; musikaz eta kirolaz ere gozatu ahaliko da z

Gerrako umeen begirada biltzen duen erakusketa Kultur Etxean ikusgai

IBARRA Gaurtik zabalik dago 'Bizitza osoa umeak izaten' izeneko lana 6

II. Zaldi Raid Lasterketa izango da hilaren 27an

BEDAIO Hilaren 24ra arte dago izena emateko aukera; 10 euro ordaindu beharko dira 5

UNAI ONSALO PILOTARIA

«Horrela itzuliko nintzenik pilotara ez nuen pentsatzen»

ARESO Irabazi beharreko ia txapelketa guztiak irabazi zituen, baina ez diote aukerarik eman 7



sarrerak



HITZAK harpidedun batentzat 2 menu oso ditu

Tolosako
XI. Garagardo Azoka

Irailak 19rako
Larunbata

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



TXOKOA hitza

Eskualdeko lau bertsolari lehian ariko dira Txapelketa Nagusian



Atzo aurkeztu zuten XV. Txapelketa Nagusia Bilbon; Bertsotale Elkarteko arduradunek eta babesleek. GALDER EIZAGIRRE

Bertsolaritza » Urriaren 3an hasiko da; parte hartuko dute, Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Unai Muñoak.

ERREDAKZIOA

Urriaren 3tik abenduaren 13ra, errusiar mendiaren gisara, emozioak eta bertsotak biraka, gora eta behera ibiliko dira Euskal Herri osotik barrena. Orduan jokatuko baita, lau urtetik behin ospatzen den Bertsolari Txapelketa Nagusia.

XV. edizio honetan, Euskal Herri osoko 44 bertsolari ariko dira lehian, bi arabar, 12 bizkaitar, 21 gipuzkoar, lau nafar, eta bost iparraldeko. Eskualdea ordezkatzuz berriz, bertan izango dira Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Unai Muñoa ber-

tsolariak. Azken honek gainera estrena-ko hartuko du parte.

Hamalau saiok osatuko dute 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Denera, hiru sailkapen fase-tan banatuko dira: final-laurdenak, finalaurrekoak eta finala. Lehena kanporaketetan 36 bertsolari ariko dira, guztiak herrialdeko txapelketetan sailkatuak. Hor izango dira Agirre, Irazu eta Muñoa. Finalaurrekoetan abesteko aukera berriz, 24k bakarrik izango dute. 2005eko Txapelketa Nagusian parte hartu zuten zazpi finalistek eta final-laurdenetan sailkatutako 14k. Finala berriz, abenduaren

13an jokatuko da Barakaldon, BECen eta bertan, zortzi bertsolari izango dira oholatza gainean. Duela lau urteko txapelketa, hau da, Andoni Egaña, eta finalaurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak. Zarautzarrak lau aldiz irabazi du dagoeneko txapela, eta aurten, bosgarrenaren bila joango da.

Txapelketa Nagusia Zestoan hasiko da urriaren 3an, hiru aldiz txapelketa izan zen Uztapideren jaioterrian. Txapelketa handia jaiotze 100 urte bete direlagoratzeko omenaldi ekitalditxo bat egingo diote.

Sarrerak interenetez eskuratu ahal izango dira

Antolatzaileek, saioterako sarre-rak aurrez erosi eta norbere etxean inprimatzeko sistema ezarri dute. Era horretan, txarteldegiko ilara

luzean zain egon gabe sartu daitezke bertsotaleak saiora. Sarreraren salmentarako www.bertsosarrerak.euzkoelkartea.net webgunea sortu dute. Hala, txartelak saioa izango den aste hasieran jarriko dira eskuragarri. Saio guztietara joan nahi dutenentzat berriz, bonuak egin dituzte. Bestalde, finalerako sarrera, zein autobus eta bazkaritarako txartelak, interneten eta ohiko salmenta guneetan erosi ahal izango dira. Eskualdean, esaterako: Alegian, Jubilatuenan; Ikaztegiatan, Toki Alai tabernan; Tolosan, Kantabrikon; Villabonan, Amasa kafetegian eta Leitzaan, Maimur liburutegian.

Lehian ez ezik, antolatzen ere eskualdeko batzuk ariko dira

Oholatza gainean, bertsotan ariko dira 44 lagunak ez dira izango Txapelketa Nagusiko protagonistak bakarrik. Saio biribila ateratzeko, ezinbestekoa baita atzetik ari diren hainbat eta hainbat lan ere. Orotara, hamar lagun ariko dira epaile lanetan, eta beste horrenbeste, aurkezle eta gai-jartzaile lanak egiten. Horien artean izango dira, Zigor Leunda eta Unai Elizasu. Lehendabizikoa, epaimahaian egongo da, eta bigarrena berriz, gaiak jartzen.

Zigor Leunda, billabonatarra, bigarren ariko da epaile lanetan, Txapelketa Nagusian. Gipuzkoako Herriarte Txapelketa hasi zen lanbide horretan, duela urte batzuk.

Unai Elizasu berriz, hirugarren aldiz ariko da gaiak jartzen, Txapelketa Nagusian. Lanku bertsotze berriz, ekimenen egiten du lan Leitzaiko bizilagunak. Emanal-

di bereziak sortu izan ditu, eta baita hauetan parte hartu ere. www.gai-jartzaila.com atariko sortzailea da.

Berrikuntzen artean, belodromoa

Aurten aldaketak egongo dira azken finalaurrekoan. Izan ere, Bertsotale Elkarteko kideek Antonio Elortza Belodromoan egitea erabaki dute. Orain dela lau urteko erantzuna ikusita, Atano III pilotalekua txiki geratu zela eta. Belodromo egokitu dute azken finalaurrekoan. Bertsolaritza saio onean dagoela iritzita, antolatzaileek ikusmin handiko saioa izango dela aurreikusten dute azaroaren 29koan, horren ostean zortzi finalistak zeintzuk diren erabakita izango baita.

» SAIOAK

FINAL-LAURDENAK.

■ **Zestoa.** Urriaren 3an, Gurutzeara pilotalekuan jokatu da, 17:30etik aurrera.

■ **Leitza.** Urriaren 10ean, Udaltaldean izango da saioa, 17:30ean. Iñigo Olaetxea, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñigo Manzisidor Mantxi, Ibon Ajuria, Xabier Sukia eta Etxahun Lekue ariko dira bertan.

■ **Bilbo.** Urriaren 11n, Arriaga antzokian izango da, 17:30ean.

■ **Uztaritze.** Urriaren 17an, Kiroletan pilotalekuan jokatu da kanporaketa, 17:30etik aurrera.

■ **Zarautz.** Urriaren 18an, Aritzabalde pilotalekuan izango da saioa, 17:30etik aurrera.

■ **Laudio.** Urriaren 24an, Lamuza Granja pabilioian jokatu da azken final-laurdena. 17:30ean izango da hau ere.

FINALAURREKOAK.

■ **Bergara.** Azaroaren 4an, Udaltaldean pilotalekuan jokatu da lehen finalaurrekoa, 17:30etik aurrera.

■ **Gasteiz.** Azaroaren 8an, Europa pabilioian izango da saioa, 17:30etik aurrera.

■ **Tolosa.** Azaroaren 14an, Usabal kiroletan jokatu da, 17:30etik aurrera. Igor Elortza, Sustrai Colina, Zarauzko irabazlea, puntuazioz 2. geratu dena; puntuazioz 6.a eta puntuazioz 10.a ariko dira bertan.

■ **Hendaia.** Azaroaren 15ean, Belzaria pilotalekuan jokatu da, 17:30etik aurrera.

■ **Gernika.** Azaroaren 21ean, Jai Alai pilotalekuan izango da saioa, 17:30ean.

■ **Iruñea.** Azaroaren 22an, Anaitasuna pabilioian jokatu da, 17:30etik aurrera.

■ **Donostia.** Azaroaren 29an, Antonio Elortza belodromoan izango da hau, 17:30ean.

FINALA.

■ **Barakaldo.** Abenduaren 13an, Bilbao Exhibition Centre-n jokatu da. Goizeko saioa 11:00etan hasiko da, eta arratsaldekoa, 16:30ean.



» AITOR MENDILUZE

Andoindarra jaiotzez, baina Iruan bizi da orain. 34 urte ditu. Ingenieritza ikasketak egin ditu eta Gipuzkoako Bertsotale Elkarteko langilea da. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. 2001ean eta 2005ean Txapelketa Nagusietan azken saiora iritsi zen. Hernani eta Andoingo bertsotale-ekoletan ibilia da, ikasle nahi irakasle gisa.



» AMAIA AGIRRE

Bilabonatarra da. 32 urte ditu. Euskal Filologian lizentziatua da eta gaur egun hezkuntza arautuan bertsolaritzako irakasle da. Xepelar sarria irabazi zuen 1998an. Hamaika Bertuteko kidea da. Gipuzkoako 2003ko txapelketan finalista eta 2007ko finalaurrekoetara sailkatu zen. 2005eko Txapelketa Nagusian finalaurrekoetara ailegatu zen.



» JEXUX MARI IRAZU

Larrauldarra da jaiotzez, eta egun ere han bizi da. 37 urte ditu. Ikasketaz Filosofian lizentziatua da eta azken hamar urteetan bertsolaritza eta kazetaritza konbinatu ditu. Bertsoa.com bertsotze digitalaren sortzailea da. Hiru Txapelketa Nagusietan abestu du eta bitan finalista izan da. Tolosa eta Hernaniko bertsotale-ekoletan ibilitakoa da bera.



» UNAI MUÑOA

Berrobin jaiotza, Lasarten bizi da egun. 27 urte ditu. Oinarritzoko ikasketak egin eta lan askotan ibilitakoa: sukaldari, harakin eta tabernari. Bertsotale Elkarteko irakasle da hezkuntza arautuan. Hamaika Bertuteko kidea da. Txapelketa eta sariketa ugari irabiltakoa da. Lehengo aldiz lehiatu da Txapelketa Nagusian. Lasarteko bertsotale-ekoletan trebatu da.

Laburrak

'Liverpool' filma gaur ikusgai, zine forumean

KULTURA ● Liverpool filma izango da gaur ikusgai Leidor aretoan, zine forumaren baitan, ohiko moduan, jatorrizko bertsoan. 19:30ean izango da lehendabiziko saioa, eta 21:45ean bigarrena. Bihar, bestalde, *Pagafantas* filma botako dute 22:30ean. Etzi, 19:30ean, *Pagafantas* izango da ikusgai, eta 22:30ean, *Desgracia*. Igandean, gaztetxoek *Cher ami* ikusteko aukera izango dute euskaraz, 17:00etan, 19:30ean *Desgracia* ikusi ahaliko da, eta 22:00etan *Pagafantas*. Astelehenean, ikuslareren eguna, 20:30ean, *Desgracia* ikusi ahaliko da.

Kontzientziari buruzko jardunaldiak egingo dituzte

GIZARTEA ● Hilaren 21etik 24ra kontzientzia orokorrari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Tolosako Sanatana Dharma Yoga eskolak. Baretetik, hitzaldiak egingo dira Kultur Etxean, eta bestetik, tailerrak antolatuko dituzte. Hauek Sanatana Dharma Yoga eskolan emango dituzte. Jardunaldiak doakoak izango dira, eta beraz, herritar guztiei irekiak.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarantz autob: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurrerandi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Garagardozaileen festa zabalik Zerkausian, gaurtik igandera

Gastronomia »

27 garagardo mota dastatzeko aukera izango da; 1.200 lagunentzat lekua egongo da afaltzeko.

INIGO TERRADILLOS

Gaur zabalduko ditu atek Zerkausian XI. Garagardo Festak. Tolosako Judo Taldeak, Tolosa CF nesken txirindulari taldeak, Tolosa Igarondo Urpekoak eta Tolosaldea IKTK antolatuta, igandera arte luzatuko da jaia, eta edateko eta jateko aukera anitzaz gozatzeko gain, ekitaldi ugari izango dira.

Beste urteetan baino garagardo mota gehiago izango dira aukeraren aurtengo festan, 27 hain zuzen ere. Horietatik lau dira normalak, eta gainerakoak bereziak. Jakie dago kienez, beti bezala, alemaniar ohiko jakiak izango dira, hau da, saltxitxak eta ukondoak, besteak beste. Hala, menua ere prestatu dute, eta postrea ere sartzen da hauetan. Eta gaztetxoek zuzenduriko jakiak ere badituzte.

Festarekin batera, ekitaldi ugari

18:00etatik aurrera egongo da iri-kita Garagardo Festa lau egunetan. Gaur eta igandean 23:30ak arte egongo da zabalik, eta bihar eta etzi, 00:30ak arte. 1.200 lagunek afaltzeko lekua egongo da, eta 200 lagun baino gehiago ariko dira lanean bertan.

Musika eta kirolarekin ere uztartuko da festa. Hala, gaur, 20:30etik aurrera, Tolosako Musika Banda ariko da, Alemania eta

Jatekoa eta edatekoaz gain, musika eta kirol ekitaldiak ere izango dira Zerkausian inguruan

Austriako garagardo festetan jotzen dituzten martxak, polkak eta baltsak eskainiz. Eta bihar, Martxaundi V proiektuaren aurkezpena izango da, Triangulon, 23:00etan, Nekro, Zesuma, Inde Kitxen, Kantaflor, Kraen, Potentor, Laket, Inside, Gargantas Desgarradas eta Caligula taldeekin.

Kirolari dagokionez, etzi, Bizikleta Eguna izango da, Belca-Oriako taldeak antolatuta, eta gazteak bizikleta gainean, herrian zehar ikusteko aukera izango da, eta baita beste hainbat jokotan jolasean ere. Igandean ere egingo diote tar-tea kirolari; kasu honetan xakeari, izan ere, xake erraldoia jarriko dute Triangulon, Xake elkarteak antolatuta.

Ederki edan eta jan nahi duenak, beraz, gaurtik aurrera aukera paregabea izango da Zerkausian, giro paregabeaz lagundurik, gainera.



Pasa den urtean ere jende ugari izan zen Garagardo Festan. DIARIO VASCO

«Oso giro polita sortzen da Garagardo Festaren inguruan»

ASIER BAKAIKOA » Kirol teknikaria

Azoka » Beste urteetan bezain arrakastatsua izateko aurten festa espero dute; 200 lagun baino gehiago ariko dira lanean.

I. TERRADILLOS

Badaki Asier Bakaiokoa zer den Garagardo Festa antolatzea, hainbat urtez ari baita ekimen honen atzean lanean. Aurtengoa ere beste urteetako bezain arrakastatsua izatea espero du.

Zer du berririk aurtengo Garagardo Festak?

Besteetan baino garagardo gehiago egongo dira aukeraren, 27 denera. Jakie dagokionez, ohikoekin jarraituko dugu, eta iaz berrikuntza izan zen brotxetekin jarraituko dugu, harrera ona izan baitzuten.

» DATUAK

Egitarua

■ **Irailak 17, gaur.** 18:00etatik 23:30era egongo da zabalik Garagardo Festa. 20:30ean, Tolosako Musika Bandaren kontzertua, Zerkausian.

■ **Irailak 18, bihar.** 18:00etatik 00:30era egongo da zabalik. 22:00etan, Martxaundi V proiektuaren aurkezpen kontzertua, Nekro, Zesuma, Inde Kitxen, Kantaflor, Kraen, Potentor, Laket, Inside, Gargantas desgarradas eta Caligula eskualdeko taldeekin, Triangulon.

■ **Irailak 19, larunbata.** 18:00etatik 00:30era egongo da zabalik Garagardo Festa. Bizikleta Eguna Belca-Oriako taldeak antolatuta

Gaztetxoentzako bereziki pentsaturikoekin ere jarraituko dugu, saltxitxa ogitartekoekin, hain zuzen. Hamaika urte eta gero, bada kigu zer gustatzen zaion jendeari, beraz, hori ematen saiatzen gara.

Horrez gain, ekintza ugari izango dira.

Bai. Agian Martxaundiren aurkezpen kontzertua izango da pisu gehiena duena. Eskualdeko talde ugari gozatzeko aukera izango da. Musika Bandaren kontzertua ere hor dago, beraz, giro polita ziru sortuko dela. Gero Bizikleta Eguna eta Xake erraldoia ere izango dira, bereziki gazteei zuzenduak.

Beste urteetan jende ugari izan ohi da Tolosako Garagardo Festa. Aurten ere errepikatzea espero duzue, ezta?

Hori espero dugu. Egia da eguraldiak ere zerikusi handia izaten

duela horretan, beraz, espero dugu ona egitea. Gaurkoan, adibidez, jendea giro lasaiean joango da gehiago, lasaiean eta jatera. Bihar eta larunbatean, festarako giroa ere izango da. Giro oso polita denetan ere.

Asteburuan jai giroa izango da beraz, Tolosan.

Bai, aukera badago festarako, izan ere, Garagardo Festa itxi eta gero tabernetara joango da jendea, eta gainera itxiera ordua luzatuko dute biharko. Beraz, jende guztia gonbidatu nahi dugu bertan parte hartzera.

Bertan bildutako dirua antolatzen dabilzan lau taldeentzat da.

Bai, 200 lagun baino gehiago ariko dira lanean lau egunetan, eta ondoren taldeentzat izango da dirua, urteko ekintzetarako erabili dezaten.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Banatzalea.** Banatzaile gidaria behar dugu. Tolosaldekoa. Interesatuak deitu 648 00 47 98 telefono zenbakira.

■ **Zaintzailea.** Emakume eskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interesatuak deitu 665 72 04 26 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Jertsea.** Jertse gris bat galdu dut Tolosako Laskorain kalean. Sarituko da. 605 74 46 23 telefono zenbakira deitu.

izango da Triangulon, 18:00etatik aurrera.

■ **Irailak 20, igandea.** 18:00etatik 23:30era egongo da zabalik. Xake erraldoia izango da, Xake elkartearen eskutik Triangulon, 18:00etan.

Eskaintza

■ **Garagardoa.** 27 garagardo mota aukeraren. 4 normalak eta gainerakoak bereziak. Sei erakotako izango dira: horia, txuria, alkoholik gabea, iluna edo tostata, gorria eta beltza.

■ **Jakiak.** Saltxitxak, burrunzia, ukondoa, patata frijituak ogitartekoak egongo dira, eta baita postrea ere, gazta, irasagarra eta euskal pastela.

Adunan bertan bost ikastaro egiteko aukera

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak haurrentzako ikastaroak antolatu ditu Adunan. Herrian bertan antzerkia, futbola, saskibaloia eta boleibola, euskal dantza, ki-

rola ezagutuz ikastaroa eta pilota egin daitezke.

Izena emateko epea hilaren 21ean amaitzen da eta taldea osatzeko gutxienez sei lagunek eman behar dute izena.

» IKASTAROK

■ **Antzerkia.** Astelehenetan, 16:30etik 17:30era. HH4tik LH6ra bitartekoentzat. Hileko 8 eta 6 euro.

■ **Futbola, saskibaloia eta boleibola.** Astelehenetan, 16:30etik 17:30era, LH3tik LH6ra bitartekoentzat. Hileko 8 eta 6 euro.

■ **Euskal dantza.** Ostegunetan,

18:15etik aurrera, HH4tik LH6ra bitartean. Hileko 8 eta 6 euro.

■ **Kirola ezagutuz.** Ostiraletan 16:30etik 17:30era. HH4etik LH6era bitartekoentzat. Hileko 8 eta 6 euro.

■ **Pilota.** Ostegunetan, 16:00etatik 17:00etara. LH3tik LH6ra bitartekoentzat. Hileko 8 eta 6 euro.

Kiroldegiko ikastaroetan izena emateko aukera

ERREDAKZIOA

Asteasuko kiroldegian hainbat ikastaro egiteko aukera izango da denboraldi honetan: 3. adinekoentzat gimnasia, aerobik, mantenu gimnastika, yoga, pilates, ciclo indoor helduentzat eta gazteentzat.

Bestalde, kiroldegirako abonak egiteko ere aukera dago. Urte guztirako, helduek 100 euro ordaindu behar dute, gazteek 75 euro eta jubilatuak 50 euro. Hiruhilabetea 45 euro da, hilabetea 25 euro eta eguneko sarrera 2,5 euro.

» IKASTAROK

■ 3. Adinekoentzat gimnastika.

Astelehen eta asteazkenetan, 10:30etik 11:15era. Prezioa: 85 euro.

■ **Aerobik.** Goizez, 09:30etik 10:30era, astearte eta ostegunetan. Prezioa: 100 euro. Arratsaldez, 20:00etatik 21:00etara, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Prezioa: 150 euro.

■ **Mantenu gimnastika.** Astelehen, asteazken eta ostegunetan. 15:00etatik 16:00etara. Prezioa: 150 euro.

■ **Yoga.** Astelehen eta asteazkenetan, 17:00etik 18:30era. Prezioa: 150 euro.

■ **Pilates.** Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara. Prezioa: 150 euro.

■ **Ciclo indoor.** Talde 1: astelehen eta asteazkenetan. Talde 2: astearte eta ostegunetan. 19:00etatik 20:00etara. Prezioa: 150 euro.

■ **Ciclo indoor gazteentzat.** 12 eta 18 urte bitartekoentzat. Ostiraletan, 17:00etatik 18:00etara. Prezioa: 65 euro.



Nahikari Iturbe eta Eneko Bergara, Olaederra kiroldegian, atzean kantxa berriua dutela. I. GARCIA

'Billabonara' 24 orduko areto futbol txapelketa antolatu dute astebururako

Villabona » Etzi hasiko da lehiaketa, 12:00etan; gaur eta bihar dira azken egunak izena emateko eta 100 euro jarri behar dira.

IMANOL GARCIA

Villabonan dagoen futbol zaletasunaz baliatuta, herritar talde batek **Billabonara** 24 orduko areto futboleko txapelketa antolatu du asteburu honetarako. Txapelketa etzi hasiko da, 12:00etan, eta finala

igandean izango da, 12:00etan ere. Ez da lehenengo aldia horrelako txapelketa bat antolatzen dela herrian. Antolakuntzan dabilzan Eneko Bergara eta Nahikari Iturbek azaltzen dutenez, «herrian futbol zaletasun handia dago. Santio festetarako plazan egiten den futbol txapelketak jarraitzaile asko ditu eta giro handia izaten da bertan».

24 orduko txapelketarik herrian aspaldi egin gabe zeudenez, eta «herri giroa sortzeko asmoz», berriro ekin diote txapelketarekin. Halere, ez da bakarrik futbol kontua izango ekimenaren baitan. Olaederra kiroldegian egingo da txapelketa eta barra bat jarriko dute. «Pintxoak jateko, sagardo kupela... eta sorpresarik ere izango da», diote antolatzaileek. Zozketa ere antolatu dute. Saria lau lagunentzako Aburuza sagardotegian afaria izango da eta zenbaki sari-tuaren berri sari banaketan eman godo dute.

Kantxa estreinatzeko

Berezitasun bat izango dute txapelketan parte hartzen dutenek, Olaederrako kantxa berriua estreinatuko baitute. Egundotan ari dira lanak amaitzen. Dirudienetz aurreko kantxan irristatu egiten ziren jokalariek eta horregatik egin dute berrikuntza.

Edozeinek eman dezake izena txapelketan. Nahikoa da bost lagun izatea. Gainera, taldea neska

eta mutilez osatuta egon daiteke. Talde bakoitzak 100 euro jarri behar ditu eta izena emateko azken egunak gaur eta bihar dira. Gutxienez 16 talde behar dituzte txapelketa abian jartzeko. Dagoeneko talde batzuk izena eman dute, herrikoak zein Villabona kanpokoak ere. Kanpokoentzat kultur etxea egokitu dute gauetan zehar atsedena hartu nahi dutenentzat. Izena emateko 943 69 44 58 telefono zenbakira deitu edo billabonara@gmail.com helbidera idatziz behar da.

Bihar bertan egingo dute txapelketaren zozketa, taldeen arteko norgehiagokak zehazteko. Sistema oso erraza izango da: partida irabazten duenak aurrera egingo du eta galtzen duenak txapelketatik kanpo geldituko da. Ziurrenik partida bakoitzak 25 minutuko bi zati izango ditu, baina hori izena ematen duten talde kopuruaren arabera erabakiko da. Sariak ez dira nolana hikoak izango: txapel-dunak 900 euro jasoko ditu eta txapeldunordeak 450 euro.

Antolatzaileek parte hartzera gonbidatu dute. «Jokatzeko pixka bat alpertuta daudenak animatu daitezela», azaldu dute. Aurrera begira, aurtengoak arrakasta badu, erreplikatzeko asmoa dutela azaldu dute. Bestalde, bai Villabonako Udalarri bai hainbat komertzioei areto futboleko txapelketa antolatzeko eman duten laguntza eskertu dute antolatzaileek.

Irailak 19, 12:00etatik
Irailak 20, 12:00etara

VILLABONAKO
Olaederra kiroldegian

Billabonara

24 orduko
FUTBITO txapelketa

Izen ematea 943 69 44 58 telefonoan
(kontaktu telefonoa erantzungailuan utzi)

edo.billabonara@gmail.com
helbide elektronikoa.

Prezioa taldekako: 100€

SARIAK: 1.saria 900€ 2.saria 450€

Lo esin edota atsedean hartzeko lekua izango da Antolakuntzak ez du hartuko bertan gerta daitezkeen ezbeharren erantzukizunik

Laguntzaileak:

Ohiko Osoko Bilkura izango da batzar aretoan, gaur 20:30ean

Amezketak » Hamabi puntuko gai zerrenda eztabaidatuko dute, horien artean, arau berriatzatzaileak.

ERREDAKZIOA

Gaur Amezketako Udaleko batzar aretoan ohiko bilkura egingo dute. Udal kideek eta bertaratu nahi duten herritarrek, 20:30ean izango dute aukera jorratuko dituzten gaiak eztabaidatzeko.

Gaurko gaiak

Hasteko, 2009ko uztailaren 27an eginiko akta agiriaren onarpena izango da eta ondoren, alkatetzaren ebazpenen berri emango dute. Jarraian, hainbat puntu izango dira obra baimen eta eskaera ezberdinen inguruan. Zortzigarren puntuan, Amezketako Arau Berriatzatzaileen aldatetaren haserako onarpena izango da eta ondoren, Amezketako Plan Orokorreko Ola Auzoko 9.1 eta 9.2 Sektoreei dagokien aldateta puntualen Aurre-dokumentuari eginiko iradokizunei erantzutea eta erizpide eta helburu orokorrak onartzea. Erabilera Anitzeko Herri Zentroaren proiektua, Inbertsio plana, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu behar den hitzarmena ere onartu beharko dira. Bukatzeko, batzorde informazioa eta galdera eta erreguak izango dira.

Monteskueko diagnostikoaren eta Ekintza Planaren aurkezpena

Monteskue » Lehen zirriborroa aurkeztuko dute asteartean, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan.

ERREDAKZIOA

2008. urteko irailean hasi zuten Bepiztu egitasmoa Monteskue auzoan, Tolosako Udala, Itsas-mendikoi eta Tolomendiri esker.

Auzo batzarra

Hala, hilaren 22an, 19:30ean auzo batzarra egingo dute batzar aretoan. Bepiztu egitasmoa dela eta osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute. Auzotarren artean atzeman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatuko dira. Bepiztu egitasmoa erabat irekia da.

Laburrak

Helduen Bertso Eskolak ikasturte berria nahi du

IKAZTEGIETA » Helduen Bertso Eskola urritik aurrera berriro ere martxan jartzeko asmoa dute aurreko ikasturte laburrean aritu zirenek. Inork bertso eskolan hasi nahiko balu, hilaren 23an, asteazkena, iluntzeko 21:00etan bilera egingo dute udaletxean. Bertan ikasturte berriaren iraupena, eguna eta ordutegia zehaztuko dituzte. Bertsoaz gozatu eta astean ordu batez ondo pasatu nahi duenak atekazabalik izango ditu.

Mantenimendu gimnastika eta aerobik ikastaroak

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta Udalak, kirol eskaintzen artean, aerobik eta mantenimendu gimnastika antolatu ditu ikasturte berrirako. Mantenimendu gimnastika, astearte eta ostegunetan izango litzateke 18:45etatik 19:45era eta lehen eguna urriaren 6a izango da. Aerobikaren kasuan, hasteko eguna urriaren 5a izango da eta astelehen, asteazken eta ostialetan izango litzateke ikastaroa. Ordutegia izena ematen duen jendearen arabera aukeratu da 19:00etatik 20:00etara edo 20:00etatik 21:00etara. Izen-ematea udaletxean edota 943 65 33 29 telefono zenbakira deituz egin daiteke. Hiruhilabeteko kuota 30 euro izango da bi ikastaroen kasuan.

Errioxara bidaia Herrigintza Elkartetik

IKAZTEGIETA » Herrigintza Elkartek, urtero bezala, upategira bidaia antolatu du urriaren 3rako. Aurtur, Fuenmayorreko Heras Cordón upategira joango dira egun pasa. Irteera, 09:00etan kiroldegiko aparkalekutik izango da. Izena emateko epea hilaren 27an bukatzen da eta izena ematearekin batera ordaindu egin beharko da elkartearen bertan. Bazkaldu aurretik, bidean gosaria ere egingo dute animatzen direnek eta gutzira 50 euroren truke izango da.

Bizi-Nahi Erretiratuen Elkartearen eskutik festak

IBARRA » Bizi-Nahi Erretiratuen Elkartek, hilaren 24etik 27ra festak antolatu ditu. Hilaren 24ean, 12:00etan emango diete hasiera txupinazo eta ikurrinaren altxatzearekin. Ostiraletan, ibilaldi neurtua, hamaiketako eta 20:00etan Sendi arteko afaria dantzaldiarekin izango dute. Larunbatean, 11:30ean bikote mistoek osaturiko toka txapelketa eta arratsaldean klubeko aretoan bingoa sari bereziki egingo dute. Igandean, festetako bukaera emateko, diana herriko trikitaliarekin, 11:00etan meza, 14:00etan Ibarra Belabietan bazkaria dantzaldiarekin nahi duten bazkideentzat eta 19:30ean jaien amaierako txupinazoa.

II. Zaldi Raid Lasterketarako izena emateko azken eguna hilaren 24a izango da



Bedaio II. Zaldi Raid Lasterketako kartela. HITZA

Bedaio » Iazko arrakasta ikusita bigarren antolatu du Artubi elkarteak; 10 euroren truke eman ahalko da izena.

ERREDAKZIOA

Bedaio Artubi Elkarteak lehen aldiz, joan den urtean antolatu zuen Zaldi Raid Lasterketa. Izan zuen arrakasta ikusita, bigarren urtez jarraian antolatu dute.

Ekainean buruturiko mendi marxa eta BTT zirkuituarekin, Bedaio inguruko natur gunea ezaguturazi eta inguruneaz gozatzeko aukera izan zen. Oraingo honetan zaldiz egiteko aukera izango da hilaren 27an, igandean, goizeko bederatzietatik aurrera.

II. Zaldi Raid Lasterketa

«Bedaioz gozatu, zaldiarekin trebatu, natura zaindu eta noski aberak zainduz, elkarrekin gozatzeko eta era berean, goiz atsegin bat igarotzeko aukera paregabea» prestatu dute bedaiotarrek II. Zaldi Raid Lasterketa antolatu.

Helburu bikoitza dute lasterketa honekin. «Alde batetik, Aralar naturgunearen zati bat ezagutu eta gozatzeko aukera eskaintzea eta bestetik, formakuntzarena izango da, hau da, raid bat nola burutzen den ikasteko aukera izango da».

Formakuntza motako raid bat izango bada ere, entrenamendu gisa ere har dezakete lasterketa mota hauetan aritzen diren zaldunek.

Zaldi Raid lasterketak, 40 eta 120 kilometro artekoak izan ohi diren arren, Artubi Elkarteak, 25 kilometro izango dituen zirkuitu prestatu du. Bertan federatu nahiz federatu ez direnek parte hartu ahal izango dute. Beraz, Bedaio Raidean, teknika eta baldintzak ikuspegi arinago batetik ezagutu-

ko dituzte eta «kirol honetan trebatzen hasi nahi duenarentzat aukera ezin hobea» izango da. Bedaio ingurutik izango den zirkuitua zelai eta baso ederretatik zehar igaroko da eta, ezin aipatu gabe utzi Txindoki eta Balerdi mendiek eskaintzen duten bidez gozatzeko aukera ere.

Zaldi Raid Lasterketa, erresistentzia proba da eta garrantzitsue-

Garrantzitsuena ez da lasterketan lehena izatea, baizik eta, zaldiak egoera onean bukatzea

na ez da lehenengo iristea baizik eta, zaldiak egoera fisiko onean amaitzea. Behin lasterketa amaituta, zaldiak azterketa bat pasabeharko du eta bere egoera kontrolatuko dute eta egoera onean amaitu beharra dauka: hidratazio maila, pultsazioak, herrenik egiten duen...

Irteera 09:00etan izango da bai- nara aurretik, raid batek eskatzen duen betebeharreko bat burutu beharko dute zaldunek. Zaldiaren osasuna aztertzeko albitari kontrola izango da, azken finean, «zaldia bera baita lasterketa honetako protagonista nagusia».

Izena emateko hainbat bide

Izen-ematea jada irekita dago eta hilaren 24ra arte zabalik egongo da. www.bedaio.com web orrian edota raid@bedaio.com helbidera zuzenean idatziz egin ahalko da. Hamar euroren truke edonork har dezake parte eta Artubi elkartetik, lasterketan parte hartzerako animatu nahi dituzte zaldiak maite dituzten guztiak.

Beraz, ez da plan txarra irailaren azken igandean Bedaion burutuko den lasterketan parte hartzearena edota besterik gabe ikustera joanez. Beste hainbat ekintzetan bezala, giro atsegina izango da Bedaion.

MENDI-ALDE

Egumeko menuak eta karta Bataioak, Jaumartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Tolosaldeko komunikazio talde batek **Kazetaritza edota Euskal Filologian lizentziatuak** edo ikasleak behar ditu.

Interesatuak deitu **661 678 817** telefonora



Erakusketan ikus daitezkeen irudietako batzuk. IDI EZKERRA FUNDAZIOA

Gerrako umeen begirada biltzen duen erakusketa

Ibarra » Gaur inauguratuko dute 'Bizitza osoa umeak izaten' argazki erakusketa 19:00etan Benito Izagirre kultur etxean.

REBEKA CALVO

Bizitza osoa umeak izaten: gerrako euskal umei buruzko erakusketak Espainiako gerra zibilean erbestera joan behar izan zuten 33.000 bat euskal neska-mutilak ditu ardatz. Ibarra Benito Izagirre kultur etxean ikus daiteke hilaren 30a bitarte eta gaur bertan inauguratuko dute 19:00etan.

Argazki erakusketa Ezker Batuarekin lotura duen Idi Ezkerrarena da eta fundazioko zuzendari Mauro Calvok esandakoaren arabera, «ume espedizioak iritsi ziren portuetatik nabigatzen duen barku baten bidaia da erakusketa, bertan gerrako euskal neska-mutilen bizi-bidaia erakusten dugu. Aldi berean, duela 73 urtetako ume haien bizimodua eta gaur egungo

Euskadiko heldu zein umeen bizimodua alderatzen ditugu», gaineratu du.

Abiapuntua, Bilbon

Erakusketaren abiapuntua, dena den, Bilbon kokatu behar da. Izan ere, iazko ekainean Euskalduna jauregian gerrako euskal haurrei eskainitako omenaldia egin zuen Idi Ezkerrak eta erakusketa horren ondorio dela esan daiteke. «Ekitaldi hura egun arte Euskadin egin den memoria historikoaren berreskuratzeko ekitaldi garrantzitsuenaz izan zen», gogoratu du Calvok.

Idi Ezkerrak aipatu omenaldia egiterakoan ume hauengana jo zuen eta eurekin elkarrizketak egin zituen Ibarra Udaletxeko Francisca Sanchez zinegotziak argitu duenez. «Elkarrizketekin 20 bat minutu irauten duen DVDA osatu zuten eta orduan sortu zen erakusketa egiteko ideia», zehaztu du zinegotziak. Harrera herrietan betirako gelditu ziren neska-mutil batzuen bizipenak eta erbestean

bizitza nolakoa izan den biltzen duen DVDA Ibarra ere ikusi ahal izango da erakusketarekin batera.

Bizitza osoa umeak izaten: gerrako euskal umei buruzko erakusketak, hortaz, Sobietar Batasunera, Frantziara, Erresuma Batuetara, Belgikara edota Mexikora joandako ume haien argazkiak biltzen ditu eta eurek utzitako irudiek in batera eskutitzak, marrazkiak eta beste hainbat objektu ere biltzen ditu.

Gerra pairatu behar izan zuten umeak omentzeko

Horiek horrela erakusketa honekin «eurekin zerikusia ez zuen gerra pairatu behar izan zuten ume haiek guztiak omendu nahi ditugu, euren familia eta jaioterria atzean utzi behar izan baitzituzten», esan du Sanchezek.

Idi Ezkerra fundazioaren helburua ere horixe dela dio zinegotziak: «Fundazioaren oinarria giza eskubideen defentsa eta memoria historikoaren berreskuratzeko dira».

@ Argazki Lehiaketa. Azken urteetan bezala HITZAK Argazki Lehiaketa antolatatu du udako oporren ondoren. Argazkiak iritsi bezala webgunean jarri joango gara edozeinek ikusi ditzan. Nahi duenak ere, noski, hartu dezake parte eta bere oporretako argazkia bidali tolosaldeko@tolosaldeko-hitza.info helbidera hilaren 24a arte (hau barne). Sari mundialak irabazi ditzazke. Lehiaketarekin batera webgunean ohiko atal guztiak ere aurkituko dituzte:

www.tolosaldeko-hitza.info

Hosteoporosiaren inguruko hitzaldia, gaur

Belauntza » Bihar, 'Bizikleten Mantendurako Tailerra' egingo dute 18:30etik aurrera herriko Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Belauntzan hiru ekitaldi antolatatu dituzte datozen hiru egunetarako. Gaur bertan 17:30ean herriko Kultur Etxean Ainara Lopetegigik *Hosteoporosi: nola arindu sintomak* hitzaldia eskainiko du Kutzaren laguntzarekin.

Bihar, aldiz, 18:30ean leku berean *Bizikleten Mantendurako Tailerra* egingo dute Udala Sarea 21en la-

guntzaz eta Tolosaldeko Mugikortasun Astearen baitan. Antolatuzaileek bertaratzen diren haur eta heldu guzti bakoitzak euren bizikleta eramateko gonbita egiten diete.

Bukatzeke, igandean, hilak 20, Tolosaldea Garatzenek antolatutako Mugikortasun Astearen baitan egingo duten Bizikleta Martxan parte-hartzea ere bultzatu nahi dute.

Ikaztegietatik Anoetarako bidea egingo dute eta Belauntzatik joan nahi dutenek beraien bizikletak udaletxeko kamionetan eramateko aukera izango dutela argitu dute. Horretarako 665 718 517 telefonora deitu behar da.

Yoga ikastaroak urritik ekaina bitarte

Elduain » Eskolak Larte Kultur Etxean izango dira eta urriaren 7an hasiko dira; izena emateko epea urriaren 2an amaituko da.

ERREDAKZIOA

Iaz bezala aurten ere yoga ikastaro antolatuko dute ikasturte honetarako. Eskolak Larte kultur etxean izango dira asteazkenetan, asteazkenetan 15:00etatik 16:30era, eta urriaren 7an hasiko dira.

Izen-emate epea urriaren 2an amaituko da eta udaletxean egin daiteke 09:00etatik 13:00etara edota 943 68 31 21 telefono zenbakira deituta.

Izen-emate egunean 30 euroko matrikula ordaindu behar da eta kontu korronteko 20 zenbakiak eman. Ikastaroak hileko 15 euro balio ditu eta Udala kontu ko-

rrentetik kobratuko die kopurua partehartzaileei.

Ekainean, ikastaroa bukatzerakoan, ordaindutako matrikularen kopuru osoa itzuliko diete parte-hartzaileei, beti ere, urte osoan eskolen %80an parte hartu badute, hau da 38 egunetatik 30 egunetara joan badira.

Haur Eskola Publikoa

Bestalde, herriko Haur Eskola Publikoak 2010eko urtarrilerako matrikula epea ireki du. Hilaren 30a bitarte matrikula daitezke haurrak.

Haur Eskolaren ordutegia 07:30etik 18:30era da eta haur bakoitzak gehienez zortzi ordu egon ahal izango da bertan.

Escola ezagutzeko, informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko 943 68 35 89 (Loren edo Esti) telefono zenbakira deitu behar da.

Izaskunen eguna ospatuko dute igandean

ERREDAKZIOA

Igande honetan, hilak 20, Izaskun Birjinen jaia izango da eta hori dela eta horrela deitzen diren eguna ospatuko dute Ibarra Izaskun auzoan.

Urteroko egitaraua Izaskun guztientzako

Beti egin ohi duten bezala bazkaria egingo dute Izaskun Jatetxean. Aurtengoan ere Iñigo Perurrena eta bere orkestraren musika izan-

go dute lagun «festak arratsalderarte irauten dezan». Bazkarira joan nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna eta horretarako 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar dute goizez.

Bazkaria baino lehenago, dena den, 12:00etan lagun arteko bosgarren Toka Txapelketa ere egingo dute.

Ondoren, eguerdieko ordu bat eta erdiak inguruan, meza izango dute Izaskungo Ermitan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

UNAI ONSALO › Pilotaria



NAIARA GARCIA

«Ez nuen uste horrela itzuliko nintzenik pilotara»

Areso » Onsalok Leitzako V. Txapelketa irabazi zuen Iriarterekin asteburuan. Igandean berriz, bere klubarekin, Joxean Tolosa Txapelketaren finala jokatu du.

ASIER IMAZ

Onenek ez dute beti edukitzen onenekin jokatzeko aukera pilotan. Enpresak tartean dabilta eta profesionalera iritsi nahi baldin baduzu, onena izatea ez da nahikoa. Unai Onsalok (Areso, 1985) irabazi beharreko ia txapelketa guztiak lortu zituen 23 urtekoen mailan. Baina enpresek ez diote aukerarik eman. **Gerrikoa zintzilikatzera iritsi zinen. Orain berriz itzuli eta Leitzako V. Txapelketa irabazi duzu, igandean Ametzetan finala... Berritxo ere punta puntan.** Lau hilabetez geldirik egon ondoren jokatzeko harra piztu zitzaidan. Horrela hasi nintzen eta egia esan lehen baino ilusio gehiagore-

kin. Sei txapelketetan hartu dut parte eta bostetan finalera iritsi naiz. Ez nuen uste horrela itzuliko nintzenik.

Zergatik utzi zenuen pilota?

Alde batetik irabazteko grina edo lehiakortasun hori galdu egin nuen pixka bat. Bestaldetik eskua oso gaizki nuen. Masajistarekin ibiltzen nintzen baina ezin sendatu eskua. Gehienbat eskuko min handia nuelako utzi nuen pilota.

Orain zergatik itzuli zara? Bi arrazoi horiei buelta eman diezulako?

Hori da. Nirekin pilotan ibiltzen zirenak ikusten nituen eta har hori piztu zitzaidan berriro. Jokatzeko gogo sartu zitzaidan eta eskua ongi sendatu nuenez itzultzea erabaki nuen.

Profesionalera salto egiteko aukerarik ez eduki izanak zer pentsatua ere emango zizun, ezta?

Egia esanda, horrekin nahiko etsita nengoen. Urteak aurrera zihoazela ikusten nuen eta salto egiteko aukerarik ez nuen. Memento hartan dena han bukatzen zela pentsatzen nuen. Baina orain berriz itzuli naiz eta nahiz eta jakin

gora ez naizela igoko, beste urte pare bat edo aspertu arte gozatzen jarraitzea gustatuko litzaidake.

Lasaiago jokatzeko al duzu orain, salto egiteko kontu horiek ahaztuta?

Irabazi nahi horrek sortzen dizun presioa beti egoten da. Baina gora begirako presio hori ez du orain. Lehen hor egoten nintzen ea noiz kaso egingo zidaten edo kaso egingo ote zidaten pentsatzen. Orain berriz jokatu eta kito.

Kanpotik begiratuta atentzioa deitzen du. Irabazi beharreko txapelketak irabazi dituzu, Asegarcerekin urtebete aritu zinen entrenatzen, gero berriz Asperekin. Zer gehiago egin behar zenuen?

Nik ere horixe pentsatzen nuen. Emaizak lortzen nituen eta uestez gora igotzeko zerbait egiten ari nintzen. Baina ez didate sekula arrazoioren bat eman. Begira, ez duzu pauso hori emango hau eta hau falta zaizulako. Nik gustura entzungo nuen horrelako zerbait, zertan huts egiten nuen jakitea. Baina beti ezjakitansun horrekin geratu beharko dugu.

G Gutunak

Ibartar hori!

Herriko festak jada pasa diren arren, zenbait kontu argitzeko asmoarekin gatzokizue Bartolatarrok.

Aurten ere Udaletik at antolatu ditugu festak, gestio inposatzaile eta izaera antidemokratikoa salatzeko: Baztertzaleekin ez dugula ezer jakin nahi.

Behin jaiak amaitu ondoren, argi esan dezakegu ederki irten direla: bikain, alai eta pakean.

Baina zein izan da festa aurreko Udalaren jarrera? Festak lehertzeko apustua egin zuen Udalak, festetako alde bati trabak eta debekuak jarritz.

Zeintzuk? Danborradarako danborrak; pilota partiderako frontoia; tortilla patata txapelketarako *horniloak*; ume moto festa eta danborradarako karrateramozketa gestioak; eskalada txapelketarako rokodromoan ertzainak; txosnenganak mehatxuak eta azken orduko dekretu ustelak... Argigarrira ere Udal Festa Batzordekoengana armaturiko ertzainak bidali izana.

Argi dago oso zaila dela egoera honetan festa antolatzea. Errazena litzateke denak lehertu eta festarik ez izatea, baina ehundaka lagunene parte-hartze eta konpromiso handiagorekin erantzun zion herriak probokazioei, saltsa herri-

koiarekin: herriko sokatiralari, pilotari, eskalatzale, bertsolari, dantzari, musikari eta boluntarioek jarritako saltsarekin.

Festa merkeak eta parte-hartzaileak. Saltsa ederra Bartola erraldoiak eta zezensuzkoak jarritakoa. Ezin hobea Xantos eta Anjerena. Danborrada berreskuratua eta etorkizun bikainarekin. Zenbait mementotan herriko plaza, Udalaren atzean zegoela zirudien, gune goxoa benetan Bartolarena.

Hurrengo urterako indarturik gaude eta apustuak ere berrituko dira. Ahaztu gabe eskerrak eman Bartolarekin batera lanean eta gozatzen ibili zareten ibartar orori: Bartolak zuekin kontatzen du aurterra begira, Bartolak ez du irribarreagalduko eta baztertzaleen aurrean letaginak erakutsiko ditu!

Eskerrak ere eskualdeko herri ezberdinei, emandako laguntza eta erraztasunengatik, aurrera begira ziur ere zuen laguntza ongi etorria izango dela. Elkartasun hau ez dute eteterik izango debeku eta probokazioaren prepotentziak. Normala liteke zenbait egi entzuteak, min egitea udal agintarici, baina soluzio bakarra, egoera bera aldatzea da, ez debeku eta ertzainenak bidualtzea.

Herriitik Herrintzat! Baztertzaleak baztertuz! *Apuntarlo bien, sasi-corporacion municipal.*

Bartolaren Jai Batzordea. Ibarra.



Sokatiralarien lehia aurtengo Bartoloetan. BARTOLAREN JAI BATZORDEA

H Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

MARI KARMEN SOROA ORIA

Muxu handi bat eta gero arte

Arantxa, Ixabel, Joxepa eta Marianjeles

ELDUAIN
2009ko irailaren 17a





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** X. Garagardo Festa Zerkausian, kirol taldeek eta Udalak antolatua. Dastaketa eta kultur ekitaldiak. Gaurko egitaraua: inautegurazioa, 19:00etan; Tolosa Musika Banda, 20:30ean.

Deialdiak

■ **Izaskun.** Izaskun izena dutenen festa Izaskunen hilaren 20ean: 12:00etan toka, jarraian meza, bazkaria Izaskun jatetxean eta musika Iñigo Perurenarekin. Izen-ematea, 943 675927 (goizez) telefono zembakian. Gaur da azken eguna.

Zinema

■ **Tolosa.** *Liverpool* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean jatorrizko bertsiotan.

Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan.

■ **Ibarra.** Gerrako umeei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jaso dira.

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrerren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulгатiboa Aranburu Jauregian.

Kirola

■ **Bedaio.** Irailaren 27an II. Raid Lasterketa antolatu dute Bedaion, 25 km-ko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartearen, informazio gehiago www.bedaio.com.

Mendi itteerak

■ **Villabona.** Hilaren 19 eta 20rako Picos de Europa itteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (649 717182, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.


■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Datorren hilaren 24ra arte jasoko ditu Hitzak bere Argazki Lehiaketarako argazkiak; oraindik garaiz zaude sari mundialak irabazteko. Hauek Zarautzik, Donostiatik eta Pirinioetatik heldu zaizkigu.

Era guztietarikoak

ZARAUTZ ● Zarauzko malekoiak argazki ederrak ateratzeko eszenatoki paregabea izan ohi da. Ikerrek eta Ainarak horrela topatu zuten eta irudi eder hau harrapatu zuten. «Argazki hau zarauzko hondartzan aterakoa da. Itsasoaren haserrea adierazten du. IKER ETA AINARA»



GAVARNIE ● «Lehiaketarako argazki hau bidaltzen dizuet. Gavarnien aterata dago, Piriniotako egun luze baten ostean ongi merezitako afaria prestatzen». EGOITZ BENGONTXEA



REALZALEA ● Haur honek Ikerrenen atentzioa deitu zuen eta argazkitxo bat ateratu zion; hauxe azaldu digu: «Argazkia, Donostiako parke batean ateratu nuen; haur hau topatu genuen bere zapatilarekin jolasean duela aste batzuk». IKER NELASA (URURIA)

A Agurrak



Urte askoan!

Nestor Barriola Goikoetxea (Tolosa). Gaur 5 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak urtebetetzeak urrezko ezteiak ezkontzak jaioberriak jaunartzeak...